

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Biharko hauteskundeetan, «alea jacta est»

Berriro ere hementxe gaude, hauteskunde bezperan, uda giroan egindako kanpaina bitxi bat amaitu berri. Gogoetarako omen den egunean. Bereztasunak bereztasun eta bitxikeriak bitxikeria, hauteskundearen emaitza eta ondorego kudeaketa –hau da, gobernu osaketa– garrantzitsua izango dira, baita Euskal Herriko errealitatearentzat ere.

Apenas pasatu dira bi hilabete azken hauteskundetatik, eta handik hona egindako ibilbidea ez dela oso argigarria izan esan daiteke. Bi datu objektibo egon badaude, haatik: bata, PPk Estatuan aurreko hauteskundeak irabazi zituela eta horrek bere horretan biharkoak irabazteko faborito bilakatu duela; bestea, udal eta autonomia gobernuen osaketan argiki ikusi dela PPk Vox-ekin gobernatuko duela hala behar badu. Seguru asko, hala beharko du hauteskundeak irabazten baditu.

Hala ere, azken bozketatik honako aste gutxi hauetan, egoeran zein joeretan aldaketak eman direla sinetsarazi nahi izan digu hainbatek.

Horrela, sorpresaz hauteskundeetara deitu ostean, mugimendu horrekin eta PP-Vox akordioak gauzatzeko ekarriko zuen ezkerreko botoaren mobilizazioarekin, Pedro Sanchezek aurreikuspenari buelta emango ziola entzun genuen. Gain-azpia egitea lortuko zuela. Aste batetik bestera, Feijooarekin izandako aurrez aurreko eztabaidak galtzaile bihurtu zuen berriro. Horrenbesteko garrantzia al du halako eztabaida batek? Ondoren, Feijooaren hanka-sartze eta gezur batzuk tarteko, PSOE-Sumar gobernuaren osatzeko itxaropena piztu omen da. Lau hautagaien artean egin beharreko eztabaidan kale egiteak ez omen dio mesederik egin PPko buruari. Berriro ere galdera bera: Horrenbesteko garrantzia al du gertaera batek? Feijoo

droga trafikatzailerik batekin zuen adiskidetasun estuak kalterik egingo ote dion ere ikusteko dago.

Horren denaren erantzuna bihar izango dugu, eta akaso ondoren norbaitek argituko du aipatutako horiek edo horietako batzuek benetan eraginik izan ote duten. Astez astez aldaketa horiek eman ote diren edo mugimendu txikiak ere egon ez ote den.

EUSKAL HERRIKO JOERAK

Euskal Herrian maiatzaren 28ko zenbait joerak bere horretan segitu dutela esan daiteke. Nafarroako egoera berezia gorabehera (nola eboluzionatuko ote du eskuinaren zatiketa horrek?), EH Bilduk emaitza onak izango dituela eta EAJk kezkatzeko motiboak izan ba-

Nafarroako egoera berezia gorabehera, EH Bilduk emaitza onak izango dituela eta EAJk kezkatzeko motiboak izan badituela diote askok

dituela diote askok. Ezker subiranistak bere estrategia berresteko aukera izango luke horrela, nahiz eta Madrilen eskuineko gobernuaren gailentzen bada joko arauak aldatuko diren neurri batean. Jelkideen go-goan, berriz, boz eguna eta bozen inguruko balorazioak lehenbailehen pasatzea. Bost diputatu lortuta, gaitz-erdi, eta segidan bi helburu nagusi: Madrilen eragile izateko edozein aukera aprobetxatzea, baita PPren eskutik ere, eta, are garrantzitsuago dena, EAEko hauteskundeei begira jartzea. Joera negatiboa egiaztatzen bada, bere eremu autonomiko kuttunean joera horri aurre egiteko ahaleginak eta bi egingo dituzte, erakunde horien kudeaketari eusteko.

Gero geroakoak, hala ere. Biharko, *alea jacta est*. •